



Esp. kodea: 2016KZUD0005
Titularra: ARRASATE ZIENTZIA
ELKARTEA

Gaia: Arrasate Zientzia Elkartearekin Hitzarmena
2016
Hasiera data: 2016/07/15

Hitzarmena

Arrasaten 2016ko azaroaren 29a

Arrasate zientzia Elkarte eta Arrasateko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena: 2016 urtea

Alde batetik Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Alkatea

Bestetik Javier Bengoa Leibar NAN 72.562.201 Arrasate Zientzia elkartearen presidentea

Alde biek hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

ADIERAZI DUTE:

1.- Arrasate Zientzia Elkarte 1990 urtean sorturiko kultura elkarte da eta hauek dira erakundeak dituen helburu nagusiak:

- Arrasateko kultura eta natura ikertu, zabaltu eta gai horien inguruan aholkua ematea
- Ondarearen erabilera arrazionala bermatzeko Arrasateko baliabide historiko-artistiko eta naturalei buruz aholkua ematea
- Harremana eta lankidetzaren sustatzea antzeko helburua duten erakunde eta elkarteekin

2.- Arrasateko Udalak bere helburuen artean ditu Kultura ondarearen zaintza, kontserbazio eta zabalkundea, bai eta herriko historiaren gaineko ikerketa bideratzea eta gizarteratzea ere.

3.- Bi erakundeak partekatzen dituzten helburuak ardatz hartuta Arrasate Zientzia Elkarteak 2016 urtean garatzeko ekintza zerrenda prestatu du, bai eta jarduera horiek burutzeko beharrezkoa izango litzatekeen diru baliabideen aurrekontua ere.

4.- Arrasateko Udalak Arrasate Zientzia Elkarteak azken urteotan burutu duen jarduera laguntzeko, bultzatzeko eta egonkortzeko helburuarekin aurreikusitako 2016an udal aurrekontuan hitzarmen bidezko diru laguntza bideratzea elkarteak burutu asmo dituen proiektuak finantzatzeko.

5.- Hitzarmen hau gauzatzeko eskumena aitortzen dio Udalari 2/2016 Legeak, Toki Erakundeei buruzkoak. Legearen 17. Artikuluak jasotzen du Udalaren eskumen propioen artean hauxe "21) Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea".

Alde biak bat etorri dira lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehen: Arrasateko Udalak diru diru baliabide hauek bideratuko ditu 2016 urtean Arrasate Zientzia elkartearen jardueraren finantzatzeko:

- a) 11.000 euro Hitzarmen bidezko dirulaguntza kontusailaren kontura



Esp. kodea: 2016KZUD0005
Titularra: ARRASATE ZIENTZIA
ELKARTEA

Gaia: Arrasate Zientzia Elkartearekin Hitzarmena
2016
Hasiera data: 2016/07/15

b) 10.000 euro Kultura ekintzetarako kontusailaren kontura Vasco Navarro trenaren gaineko erakusketa antolatzeak sortutako gastuak ordaintzeko. Dagoeneko gastu hauek likidatuta daude.

Bigarrena: Arrasate zientzia elkarteak 2016 urtean jarduera hauek burutzeko egitasmoa du:

- Hitzaldi zikloa antolatzea
- Mondragoeko altzairuaren gaineko ikerketa
- Webgunea, historia dokumentazioa eta argazki funtsen gaineko lana
- Joan den urtean egindako erakusketaren gaineko liburua argitaratzea
- Jarduera burutzeko lokalari dagozkion mantenu gastuak
- Garibairen omenez oroigarria instalatzea
- Vasco Navarro trenaren gaineko erakusketa antolatzea

Proiektu hauen gauzatzea balioetsi dute 41.000 euroan. Udalak, aldiz, 21.000 euro arteko ekarpena egiteko gaitasuna du, lehen klausulan zehaztutako diru banaketaren arabera, zenbateko horretan sartu gabe dago Garibairen oroigarria jartzeko egitasmoaren kostua.

Proiektu zerrenda hau ez da itxia, eta gora beherak izan ditzake sor litezkeen lehentasun berrien arabera edota egitasmoen gauzatzeak ekar dezakeen aurrekontu aldaketak direla medio.

Hirugarrena: Lehen klausulan zehaztutako diru kopuruak ordaintzeko hauek izango dira jarraibideak:

a) Dirulaguntza izaera duen 11.000 euroko zenbatekoa:

a.1.- 7.000 euro hitzarmena sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean.

a.2.- Gainerako 4.000 euroak 2017ko urtarilaren 15 baino lehen aurkeztu beharreko justifikazioa onartu ondoren. Laguntzaren justifikazioa gauzatzeko modua lotuko zaio Udalak dirulaguntzak zelan eman eta kudeatu ordenantzak eta urteko dirulaguntza deialdiak ezarritakoari.

b) Vasco Navarro trenaren gaineko erakusketa antolatzeak sorturiko gastuak, gehienez ere 10.000 euro artekoak (BEZ barne), ordainduko dira Udalaren izenean egindako faktura bidez. Hala ere, erakusketaren antolaketari lotuta izaera bereziengatik hainbat gasturen ordainketa AZEri ere agin ahal izango zaio dagokion faktura aurkeztu ondoren. Dagoeneko gastu hauek likidatuta daude.

Laugarrena Arrasate zientzia Elkarteak aholkua emango dio Arrasateko Udalari natura ondarea edo kultura ondarearen gainean.

Bosgarrena: Arrasate Zientzia Elkarteak kaleratzen dituen kartel edota gainerako inprimaki eta abarretan, nahiz jendaurrean edota hedabideen aurrean egiten dituen agerraldietan Arrasateko Udalaren laguntza jasotzen duela adierazi beharko du.

Seigarrena. Hitzarmen honen bidez finantzatuko diren jardueren ondorioz lortutako emaitzen titulartasuna Arrasate Zientzia Elkartearena eta Arrasateko Udalarena izango da. Biek ala biek erabil ahal izango dituzte emaitza horiek erakundeek argitara eman ditzaketen informazioetan edozein dela euskarria.



Esp. kodea: 2016KZUD0005
Titularra: ARRASATE ZIENTZIA
ELKARTEA

Gaia: Arrasate Zientzia Elkartearekin Hitzarmena
2016
Hasiera data: 2016/07/15

Zazpigarrena: Hitzarmenaren jarraipena egiteko osatutako da lantaldea. Lan taldea hauek osatuko dute: Arrasateko Udalaren ordezkariak izango dira Kultura eta Euskara Batzordeko burua eta Kultura teknikaria, eta Arrasate Zientzia elkartearen ordezkariak izango dira Javier Bengoa eta Jose Angel Barrutibengoak.

Zortzigarrena: Indarraldia. Hitzarmen honen indarraldia 2016eko abenduaren 31 artekoa izango da.

Ados daudela adierazteko alde bietan hitzarmen hau sinatu dute idazpuruan adierazitako egun eta lekuan.

